




# Karrera artistikoen profesionalizazioa



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



# Laburpena

Azterlanaren helburua da sortzaileen profesionalizaziorako bidea ikertzea, prestakuntza amaitzen denetik karrera artistikoa sendotzen den arte. Alde batetik, deskribatu nahi dugu zer urrats eman behar dituzten sortzaileek ibilbide profesionalean sartzeko, eta, bestetik, zer laguntza-tresna erabili ditzaketen ibilbide horretan aurrera egiteko. Hau da azken xedea: proposamenak egitea egungo gabeziak konpondu ahal izateko. Arte-irakaskuntzen analisiarekin jarraitu nahi izan dugu, eta horrez gain, kontuan hartu dugu karrerak zer gizarte- eta lan-testuingurutan gauzatzen diren. Beraz, bi alderdiak uztartu nahi izan ditugu.

Azterlan honen ondorioetarako, profesionalizazioa da jarduera ekonomiko bat garatzeko gaitasuna, lanbide artistiko baten bidez gauzatzen dena. Premisa horretatik abiatuta, hainbat gai argitu nahi izan ditugu; adibidez, ea gaur egungo tresnek errazten ote duten garapen autonomorako bidea, edo ez ote duten betikotzen testuinguru ezegonkor bat, ozta-ozta bizimodua ateratzen uzten duena.

Lehen atalean, lanbide artistikoen espezifikotasunak azaltzen ditugu, bai eta horien bereizgarri diren funtsezko gaiak ere. Jarraian, ibilbideak deskribatzen ditugu, lehen urratsetatik karrerak finkatzen diren arte, eta bide horretan erabili daitezkeen tresna lagungarri nagusiak zerrendatzen ditugu.

Azkenik, profesionalizazioa erraztea xede duten zenbait proposamen aurkezten ditugu, ideia hau oinarri hartuta: sistema batek ez du ezertarako balio aukerak eman arren ibilbide artistikoak finkatzea ahalbidetzen duen egitura instituzionalik ez badago. Sorkuntza ez da inoiz halabeharrez gertatzen, eta ikuspegi profesionaletik mamitu dadin, baliabideak behar ditu, denbora eskaini behar zaio eta sistema publiko sendo baten laguntza behar du.

# Synopsis

The aim of the study is to analyse the route towards professionalism covered by creators, from when they end their training to the consolidation of their artistic careers. On the one hand, it is a description of the steps which must be followed to break into professional circuits and, on the other hand, it is an examination of the instruments they have at hand to support them on this journey, with the final aim of putting forward proposals covering current lacunae. It is a response to the will to continue the analysis of artistic teaching and takes into account the social and work context in which the careers are carried out. It proposes, therefore, a bridge between the two.

With regard to the study, professionalism is understood as the capacity to carry out an economic activity by means of an artistic occupation. From this premise, the aim is to answer questions such as whether the current instruments facilitate the road to autonomous development or perpetuate a precarious context barely meeting living needs.

The first section is devoted to identifying the specific aspects of artistic professions and the far-reaching questions characterising their carrying out. Then, the trajectories are described from the earliest steps to consolidation and the main instruments of support for this transition are identified.

To finish, a set of proposals is put forward to be considered in order to facilitate professionalism, from the premise that a system offering opportunities with the existence of an institutional structure permitting consolidation is worthless. Creation is never casual, and for it to become successful from a professional approach, it needs resources, dedicated time and a solid public support system.

# Résumé

L'étude a pour objectif d'analyser le chemin parcouru par les créateurs et créatrices vers la professionnalisation, depuis la fin de leur formation jusqu'à la consolidation de leurs carrières artistiques. Il s'agit, d'une part, de décrire quels sont les pas à suivre pour s'introduire dans les circuits professionnels, et de l'autre, d'examiner quels sont les instruments qu'ils ont à leur portée pour les appuyer dans cette démarche, l'objectif final étant de formuler des propositions capables de couvrir les carences existantes. Cette étude s'inscrit dans une volonté de continuité de l'analyse des enseignements artistiques et tient compte du contexte socioprofessionnel dans lequel s'exercent les carrières, et se positionne par conséquent comme une passerelle entre les deux.

Aux effets de l'étude, on entend par professionnalisation la capacité à développer une activité économique à travers l'exercice d'une occupation artistique. Partant de ce principe, nous tentons de répondre à des questions telles que la capacité des instruments actuels à faciliter le chemin vers un développement autonome ou au contraire à perpétuer un contexte précaire donnant à peine de quoi vivre.

La première section est consacrée à identifier les spécificités des professions artistiques et les principaux aspects qui caractérisent leur exercice. Puis viennent la description des trajectoires, depuis les premiers pas jusqu'à la consolidation, et l'identification des principaux instruments de soutien dont disposent les créateurs dans cette étape.

En conclusion sont présentées un ensemble de propositions qui devraient être prises en considération pour faciliter la professionnalisation, en partant du principe qu'un système qui offrirait des opportunités sans l'existence d'une structure institutionnelle permettant la consolidation ne servirait à rien. La création n'est jamais fortuite et nécessite pour se concrétiser professionnellement de ressources, d'y consacrer du temps et d'un système de soutien public solide.

# Karrera artistikoen profesionalizazioa

## 1\_Aurkezpena \_6

### 1\_Lanbide artistikoak \_8

2.1. Lanbide artistikoen hiru espezifikotasunak \_8

2.2. Oinarrizko kontuak \_9

### 3\_Karrera artistikoen sarrera-logikak eta bilakaera \_12

3.1. Ibilbide profesionalak sorkuntzan \_13

3.2. Ibilbide profesionalak interpretazioan \_15

## 4\_Egungo laguntza-mekanismoak \_17

4.1. Ikusizko arteei laguntzeko tresnak \_17

4.2. Arte eszenikoei laguntzeko tresnak \_19

4.3. Musikari laguntzeko tresnak \_22

4.4. Ikus-entzunezkoei laguntzeko tresnak \_24

4.5. Literatura-sorkuntzari laguntzeko tresnak \_25

4.6. Zeharkako informazio- eta aholkularitza-programak \_26

## 5\_Beharrak eta proposamenak ikuspegi publikotik \_27

# 1\_Aurkezpena

Sorkuntza artistikoa edo asmakuntza zientifikoa mirariak izan daitezke batzuetan; baina inoiz ez dira zori hutsez gertatzen. *José Bergamín.*

## Azterlanaren helburua

Azterlanaren helburua da sortzaileen profesionalizatorako bidea ikertzea, prestakuntza amaitzen denetik karrera artistikoa sendotzen den arte. Alde batetik, deskribatu nahi dugu zer urrats eman behar dituzten sortzaileek ibilbide profesionalean sartzeko, eta, bestetik, zer laguntza-tresna erabili ditzaketen ibilbide horretan aurrera egiteko. Hau da azken xedea: proposamenak egitea egungo gabeziak konpondu ahal izateko. Hala, bi ikuspegi uztartzen dira:

1. Profesionalizazioa ibilbide gisa, prestakuntza artistikoa amaitzen denetik zirkuitu profesionalean sartzeari lortzen den arte.
2. Profesionalizazioa lan-mundurako sarrera formalizatzeko modu gisa, dauden programa eta tresnen analisiaren bidez.

Profesionalizazioaren definizio hau lanarekin hertsiki lotuta dago; ez du zertan lotuta egon artistaren kontzeptuari lotutako legitimitatearekin. Beraz, ez du zerikusirik norberak bere burua artistatzat hartzearekin eta balorazio subjektiboekin; ezta ere titulazio jakin bat izateagatik profesional-talde batekoa izateko ideiarekin, lanbide horretan aritu ez arren; eta ezta ere profesionalizazioaren eta arrakastaren arteko erlazioarekin, alderdi horiek ez dutelako zertan bat etorri. Azterlanaren planteamenduak objektiboa izan nahi du; lanbide artistiko batean arituz diru-sarrerak lortzeko gaitasunarekin lotuta dago. Hortaz, abiapuntuak “ofizioari” begiratzen dio, “arteari” baino gehiago.

Ikuspegi horretatik, hainbat auzi argitu nahi izan ditugu; adibidez, ea gaur egungo tresnek errazten ote duten garapen autonomorako bidea, edo ez ote duten betikotzen sistema ezegonkor bat, non artistek ozta-ozta bizimodua ateratzen duten beren lanbidearekin, eta bizirik irauteko osagai modura erabiltzen duten. Hortik abiatuta, indartu beharko lirakekeen tresnak identifikatu ditugu, eta proposamen metodologiko bat aurkeztu dugu sormen-ehuna profesionalizatzeko ibilbideen jarraipena egiteko.

## Testuinguruan

Behatokiak gai hau aztertu du bere azterlan kualitatiboen artean: *Goi-mailako arte-irakaskuntzen egoera eta erronkak EAEn*. Alde batetik, goi-mailako arte-irakaskuntzen lege-esparruaren hurbilketa bat egiten da, eta kuantifikatu egiten da zein den sektoreak EAEn duen errealitatea, eskaintza eta eskaria kontuan hartuz. Irakaskuntza horien egoera eta ezaugarriak ulertzeko, eta etorkizunari begira, funtsezko bi alderdi hartu behar dira kontuan: beren berezitasunak eta goi-mailako izaera. Goi-mailakoak izan arren, unibertsitatez kanpokoak dira arte-irakaskuntza gehienak, nahiz eta unibertsitate-izaera indartzeko ahalegina egin den berezko esparru batekin, 1614/2009 Errege Dekretuaren bidez onetsitako LOE oinarri hartuta. Auzitegi Gorenak ezerezean utzi zuen ahalegin hori 2012an emandako epaiarekin, eta proposatutako aurrerapenak ez ziren gauzatu. Bestalde, azaltzen da zer formula nagusi erabili diren goi-mailako arte-irakaskuntzak antolatzeko Europako beste herrialde batzuetako hezkuntza-sistemetan. Kontuan izanik zeinen garrantzitsua den Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparrua, Boloniako prozesuaren ondorioz eraikia, Europako begirada ezinbestekoa da pentsatzeko zein izango den ikaskuntza horien etorkizuna EAEn. Azkenik, ondorioetan, aditzera ematen da zein elementu nagusi jaso behar diren goi-mailako arte-irakaskuntzen egungo egoera ulertzeko eta, horrela, dituen erronkak identifikatzeko.

Duela gutxi, Behatokiak Artistentzako eta *kultura-arloko profesionalentzako etorkizuneko aukerak* izeneko azterlana egin du, artistaren estatutu berria dela-eta. Egungo erregulazioaren eta etorkizuneko ikuspegiaren erretratu sintetiko eta informatiboa eskaintzen du, problematika estatuko sektoretik eta testuingurutik haratago kokatuz. Txostenaren hasieran, lan artistikoaren espezifikotasuna xehatzen da, kolektiboaren behin-behinekotasuna eta heterogeneotasuna ezaugarri dituela, eta horrek egungo lege-testuinguruari egokitzeko zailtasunak dakartza. Problematika horrek hainbat diskriminazio eragiten ditu, ikuspuntu fiskaletik eta gizarte- eta lan-babesaren ikuspegitik, eta horregatik da beharrezkoa legedi berria sortzea.

Hemen aurkezten dugun profesionalizazioaren analisiak arte-irakaskuntzen azterketak egiten jarraitzeko borondateari erantzuten dio, eta kontuan hartzen du zer gizarte- eta lan-testuingurutan jarduten duten kulturako profesionalak. Beraz, bi alderdiak uztartzen saiatu gara, begirada prestakuntzatik lanbide artistikoak garatzeko baldintzen ikuspegiarekin lotuz, eta analisiaren arreta profesionalizaziorako ibilbideetan jarritz.

Azterketaren testuinguruarekin amaitzeko, ezinbestekoa da COVID-19ak eragindako egoera aipatzea. Pandemia piztu eta alarma-egoera ezarri baino lehen hasi ginen txostena prestatzen. COVID-19a eragin oso kaltegarria izaten ari da kulturaren sektorean, eta ez dakigu zer gertatuko den etorkizunean. Litekeena da are gehiago handitzea karrera artistikoak garatzeko oztopoak. Artistaren Estatutuari buruzko txostenaren aurkezpenean adierazi bezala, kontua ez da “artetik bizitzea” posible dela ziurtatzea, baizik eta horretan aritzea, erregulartasunez edo ez, lanaldi osoan edo ez, eta artea beste edozein aukera bezain eskuragarria izatea, sortzaileak zigortu beharrean. Gaur egungo egoera larrian, erronka izugarria izango da.

## 2 Lanbide artistikoak

Lanbide artistikoei buruzko hausnarketak lanbide horiek ezaugarritzen eta baldintzatzen dituzten espezifikotasunetatik abiatu behar du. Berezitasun horiek kontuan hartuta, oinarrizko beste auzi batzuk azaleratzen dira galdera hauetatik abiatuta: besteak beste, zer den artearen profesionala, zertan datzan haren lanbidea, eta nola lor daitekeen lanbide horretan hastea.

Lehenengo auzia profesionalaren estatusaren **definizioan** datza. Arteetan, lanbide-aurrekoaren eta profesionalaren arteko muga eta harremana lausoak dira; joan-etorriko ibilbideak dituzte bereizgarri arte-karrierek. Anbiguitasun horren ondorioz, askotan, profesional izatea desio bat da errealitate bat baino gehiago. Edo, bestela, maiz gertatzen da profesionaltasuna arrakastarekin edo artista erromantikokoaren idealarekin identifikatzea. “Sortzaile librearen” irudi ideala, utopia ez bada, arte-arloko profesional gehienekin zerikusirik ez duen zerbait da. Valcárcel Medinak bere ikuspegi erradikaletik dioenez, “ekoizten duzun horretatik ez bizitzean datza askatasuna”; eta Arte Plastikoen Sari Nazionala lortu duen eta bizimodua ateratzeko eraikinak eraberritzen dituen norbaitek esana da hori. Horrela, hainbat galdera datozkigu burura: ea artista ote den bere burua artistatzat jotzen duen pertsona, haren diru-iturriak edonolakoak izanda ere; ea posible den artista izatea artetik bizi gabe, edo, are gehiago, ea artetik bizi daitekeen “artista” izan gabe.

Bigarren auzia **laguntza publikoaren beharra** da; laguntza hori ezinbestekoa da lanbide artistikoetan jarduteko, merkatuaren ikuspegitik kimera hutsa baita ogibide horien iraunkortasuna. Praktika artistikoari dagokionez, jarduera zehatz batzuek bideragarritasun eskasa dute merkatu librean, eta horiek finantzaketa eta laguntza publiko osagarria behar dute; baina badaude merkatuan lehiatzen diren beste jarduera batzuk ere, errentagarritasun ekonomikoa lortu nahi dutenak eta, beraz, irabazi-asmoak dituztenak (hau da, kultura- eta sormen-industriak). Bigarren kasu horretan ere, nahiz eta negozio-logika nagusi izan, jarduerak izaera sinbolikoa dutenez eta gizarteak haien balio soziala onartzen duenez, beharrezkoak dira laguntza-politika publikoak, merkatuak ez baitu berez askotariko eskaintzarik bermatzen.

### 2.1 Lanbide artistikoen hiru espezifikotasunak

Lanbide artistikoei zenbait berezitasun dituzte, jarduna baldintzatzen dutenak eta zailtasunak dakartzatenak egungo legegintza-esparruaren arabera garatzeko. Lan artistikoen ezaugarrien artean, hiru alderdi nabarmentzen dira: “artista” terminoaren barruan sartzen den kolektiboaren heterogeneotasuna, lanaren behin-behinekotasuna (horregatik behar izaten dira diru-iturri osagarriak) eta sortze-prozesuaren emaitzei buruzko ziurgabetasuna. Azken ezaugarri hori lanbide zientifikoekin partekatzen dute artistek.



**Artista** kontzeptuaren barruan, askotariko egoera profesionalak eta premia espezifikokoak sortzen dituzten diziplina artistikoei lotutako profilak sartzen dira. Unescok definizio generiko bat proposatzen du. Definizio horren arabera, artista da “interpretazioaren bidez artelanen sorkuntzan edo birsorkuntzan parte hartzen duen pertsona oro, sormen artistikoa bere bizitzako funtsezko elementutzat jotzen duena eta, beraz, artea eta kultura garatzen laguntzen duena, eta artistatzat jotzen dutena edo aintzatespen hori lortu nahi duena, lan- edo elkartze-harreman baten bidez nahiz bestela”. Definizioak barne hartzen ditu bai profil sortzaileak (idazleak, konpositoreak, koreografoak, artista plastikoak, zinemagileak, gidoilariak, etab.) eta bai interpretatzaileak (aktoreak, dantzariak, musikariak, abeslariak, etab.). Gainera, soldatapeko artistak zein artista independenteak sartzen dira, lanbidean jarduteko lan-loturak behar dituzten ala ez kontuan hartuta. Beraz, lanbide artistikoen artean askotariko egoera profesionalak daude.

Bestalde, **behin-behinekotasuna** dute bereizgarri karrera horiek guztiek, artistek batzuetan lana dutelako eta beste garai batzuetan ez. Behin-behinekotasun eta aldizkakotasun horren ondorioz, diru-sarrerak irregularrak, urriak eta aurreikusitak ezinak dira, eta, beraz, prekariedadegoerak sortzen dira. Horregatik, artistek kulturarekin zerikusirik ez duten beste jarduerak batzuk eginez osatzen dituzte beren diru-sarrerak.

Kontuan hartu behar da, halaber, proiektuak ikertzeko, sortzeko eta inkubatzeko prozesuak luzeak direla, eta **denbora behar dutela**. Nekez kuantifika daiteke denbora hori, eta ezin zaio ekonomikoki egotzi azken produktuari; beraz, “ez-emankortzat” jo daiteke. Emaitzei dagokienez sortze-prozesuak berak duen ziurgabetasunaren ondorioa da. Horrek esan nahi du, baliabideak izanda ere, emaitza beti dela zalantzazkoa.

Bi aldagaiak (diru-sarrerak eta denbora) batuz gero, prekariedadea areagotzen da: zenbat eta denbora gutxiago eman sorkuntzan, diru-sarrerak sortzen dituzten jardueretan aritu behar delako, orduan eta aukera gutxiago karrera artistiko egonkor, duin eta luzea garatzeko. Hain zuzen ere, lan artistiko eta kulturala bigarren mailako diru-sarrera iturri izan ohi da, baita artista ospetsuen kasuan ere, eta paradoxa bat gertatzen da: artista arrakastatsua izan zaitezke artetik bizi gabe. Horren adibiderik ez da falta. Azken batean, arteetan karrera profesional bat garatzeko aukerak txikiagoak

dira beste sektore batzuetan baino, sormen-lanaren beraren izaeretatik, egungo lan-baldintzetatik eta testuinguruaren berezko konplexutasunagatik.

## 2.2 Oinarrizko kontuak

**Profesionaltasunaren kontzeptua.** Azterlan honen ondorioetarako, eta hausnarketa espekulatiborik egin ez dadin (interesgarriak izan daitezke, baina ez oso erabilgarriak karrera artistiko profesionalak garatzeko laguntzei buruz orientatzeko), profesionaltasunari irizpide objektiboetatik heltzea proposatzen dugu; hau da, jarduera nola garatzen den kontuan hartuta. Profesionaltasunak, hortaz, hau esan nahi du: jarduera hori ohikoa dela, haren truke ordainsari bat lortzen dela, artista alta emanda dagoela enpresa- edo lanbide-jarduera ekonomikoaren erroldetan eta dagozkion betebeharrak legal eta fiskalak betetzen dituela. Hala, karrera artistikoen kasuan, jarduera nagusia sorkuntzarekin eta erakusketarekin lotuta egon beharko litzateke, obra-salmenten eta egile-eskubideen bidez (ordainsaria eta ustiapena), edo antzezpenen, kontzertuen edo ikus-entzunezko proiektuetan parte hartzearen bidez. Jarduera nagusi hori bigarren mailako beste zeregin batzuekin osatuko litzateke (jarduera nagusiarekin lotuak: irakaskuntza, bitartekaritza, komisariotza, dibulgazioa, etab.).

**Prestakuntza espezifiko.** Beste lanbide batzuetan, jarduera prestakuntza espezifiko bati lotuta dago. Arteetan, ordea, prestakuntza arautua ez da ezinbesteko baldintza lanbidean aritzeko, musika eta dantza klasikoak salbuetsita. Norbait aritu daiteke lanbide-jarduera musikala, eszeniko edo artistiko batean titulazio akademikorik izan gabe, nahiz eta hiru kasuetan badauden arte-irakaskuntza profesionalak eta goi-mailakoak. Ez da ohikoa, baina posible da. Are gehiago: musika eta dantza klasikoak salbuetsita, titulazioak ez du bikaintasun profesionala ziurtatzen. Dena den, une honetan oso zaila da prestakuntza espezifikorik gabe bikaintasunera iristea. Idazketa dugu,



beharrezko prestakuntzari dagokionez, adibiderik “desarautuena”. Hainbat modutara irits daiteke norbait idazle izatera, eta ez dago idazle izateko gaitzen duen prestakuntza-curriculumik. Edonola ere, lanbide horietan guztietan prestakuntzaren eta praktikaren bidez lortzen da bikaintasuna.

**Prekarietatea.** Artea lanbide bihurtzeak boluntarismoa eskatzen du, eta bokazioagatik onartzen dira lanbidearen prekarietate-baldintzak. Bokazioaren pisuak prekarietatea konpentsatzeko mekanismo gisa funtzionatzen du; izan ere, praktika profesionalaren gaitz endemiko gisa hartzen da prekarietatea. Remedios Zafra<sup>1</sup> jorratu zuen gai hori saiakera batean, eta harekin identifikatuta sentitu zen komunitate sortzailea. Prekarietateak duen garrantziaren erakusgarri da Prekari-art<sup>2</sup> plataforma sortu izana. Plataforma horrek Kultura eta prekarietatearen inguruko lehen kongresua antolatu zuen Bilbon (2018), bai eta *Beharra al da artea?*<sup>3</sup> izeneko mintegia ere, Leioako campuseko Arte Ederren Fakultatean (2019).

**Desberdintasunak lanbidean sartzean eta joera sortzailea.** Sortzaileek beren karrera profesionalak garatzeko dituzten zailtasunen artean, honako hauek aipatu behar dira: borondatezko lan asko eta ordaindu gabeko lanetan aritzeko beharra; proiektukako lana, eta horrek dakarren lan- eta ekonomia-ezegonkortasuna eta segurtasunik eza; kontaktuak izateko eta gizartean ondo kokatuta egoteko beharra. Errealitate horren ondorioz, bokazioaz gain, familiari edo gizarteari lotutako euskarriak behar dira jarduerari eutsi ahal izateko. Hain zuzen ere, desberdintasunak daude lanbide artistikoetan sartzeko orduan. Desberdintasun horien artean klasea, generoa eta etnia nabarmentzen dira, Cine-Regioren<sup>3</sup> txosten batean egiaztatu zenez. Lehen begiratuan, badirudi sormen-lanbideak edozeinentzat irekita daudela bokazioa eta talentua izanez gero; baina, praktikan, sarbide-desberdintasunak daude eta pertsona guztiek ez dituzte aukera berberak lanbidean hasteko. “Koltxoi” ekonomikorik eta gizarte-kontakturik ez duten pertsonak lanbidean sartzeko aukera gutxiago izateaz gain, desoreka horren ondorioz, artista horien begiradak falta dira sortzen diren obretan. Lehenengo azuia garrantzitsua bada, bigarrena ere ez da hutsala.

**Dedikazio-denboraren<sup>4</sup> elastikotasuna.** Denbora beste lanbide batzuetan baino elastikoagoa da eta, beraz, objektibatzeke zailagoa. Ordutegiak eta lan-erritmoa irregularrak eta malguak dira: lanorduak ez daude ordutegi jakin batzuen mende, eta denboraldi frenetikoak (filmaketa bat edo bira bat, adibidez) eta ia batere lanik gabeko beste batzuk txandakatzen dira. Artista gehienak epeak jartzen saiatzen dira; hala ere, sorkuntzarako beharrezkoak diren zeregin ikusezinak gehitu behar zaizkio lanbide horien berezko aldakortasunari eta jarduera-aniztasunari.

**Bigarren mailako zereginetan aritzea.** Lanbide artistikoetan oso ohikoa izaten da lanbideari izena ematen dion jarduera nagusia uztartzea lanbide horrekin zerikusia duten bigarren mailako beste zeregin batzuekin (pedagogia, bitartekaritza, sektoreko noizbehinkako lanak). Beraz, artistak sorkuntza-lanean eta sortutakoa entzule edo ikusleei erakusten ematen du denbora, eta ohikoak eta ikusezinak diren beste zeregin asko egiten. Askotariko jarduerak identifika ditzakegu, proportzio aldakorretan: prestakuntza- eta ikasketa-denbora (hasierakoa eta jarraitua edo iraunkorra), norberaren sorkuntza edo ikerketa (hausnarketa, diseinua edo prototipoa, gidoia, konposizioa, saiakera, paperaren azterketa eta pertsonaiaren prestaketa...) eta lanaren emaitzaren erakustaldia (antzezpena, kontzertua, erakusketa), obra horien ekoizpen-denborak zentzu ekonomikoan (finantzaketa bilatzea...); eta, maiz, ordu asko eta asko bigarren mailako zereginetan (beharrezkoak dira arrazoi ekonomikoengatik, baina bateragarriak izan daitezke sorkuntzarekin, eta profil artistiko moldakorrak sortzen dituzte).

**Denbora profesionala eta denbora pertsonala nahastea.** Lanbide artistikoen beste ezaugarri bat da, eta ezaugarri horri esparru profesionala eta etxekoa gehitu behar zaizkio, jarduera profesionala maiz etxean egiten baita. Beraz, laneko denbora eta bizitzako denbora estuki lotuta daude. Ikuspegi horretatik, bereziki aztertu behar da emakume artisten egoera. Izan ere, zainketek eta familia-bizitzak eragina dute beraiengan; emakumeen jarduera irregularragoa da, zeregin asko egiten dituztelako, eta zailtasun handiagoak dituzte artearen arloko baliabideak eskuratzeko. Etxeko eta familiako denboraren banaketan dagoen desberdintasunak zigortu egiten ditu emakume sortzaileak lanbide- eta

1\_ Zafra, R. (2018) “El entusiasmo. Precariedad y trabajo creativo en la era digital”.

2\_ EHUko, Deustuko Unibertsitateko, Salamancako Unibertsitateko eta UNEDeko hideos eta artista independenteez osatutako ikerketa-taldea.

3\_ Gubbins (2016), “European network of regional film funds”. Lan horrek sakon aztertzen du zinemaren industriako aniztasuna.

4\_ Frantziako DEPSek denboraren kontuari buruzko ikerketa bat egin zuen 2017an: “Temporalités du travail artistique: Le cas des musiciennes et des plasticiennes”.



familia-esparruak antolatzeke orduan. Behatokiak<sup>5</sup> eta Kultura Auzolanean-ek<sup>6</sup> kulturako emakume profesionalen egoerari buruz egindako txostenek agerian jarri zuten errealitate hori.

**Belaunaldien arteko desberdintasunak.** Belaunaldien artean desberdintasunak antzematen dira denboraren presioari eta urgentziaren ulerkerari dagokienez, nahiz eta gai horiek artista guztiengan eragina izan. Hala, alde batetik lehen belaunaldia dago; 50eko eta 60ko hamarkadetan jaiotako artistena, alegia, eta XIX. mendeko artistaren idealaren oinordeko dena. Talde horrek denboramugak minimizatu nahi ditu, eta harreman independentea eta “presarik gabea” du denborarekin. Artista “bohemioren” profila du. Bigarren belaunaldia, berriz, 80ko hamarkadaren ostean sozializatu zen profesionalki, proiektuko lan-eredua orokortu zenean. Belaunaldi horrek aintzat hartzen ditu abiadura eta errendimendua, harreman arrazionalagoa du denborarekin, eta kudeaketa-tresnak erabiltzen ditu. Artista “ekintzailearen” profila du.

**Kultura-politikak.** Azken urteotan, EAEko politika publikoen xedea izan da sormenari laguntza handiagoa ematea arreta ekoizpenean jarri beharrean, muzin egin gabe publikoak eta eskaria sortzeari. Horrek ez du esan nahi alde batera utzi direnik ekoizpen-politika sektorialak; hala ere, gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio sorkuntza sustatzeari eta eskaria sortzeari, bitartekaritza bultzatzeko eta publikoak sortzeko programen bidez.

**Arteak eta industriak.** Lanbide artistiko guztiek partekatzen dituzte jardun profesionalerako ezinbestekoak diren sorkuntza-egoera eta -baldintza batzuk. Nolanahi ere, bi talde bereizten dira: alde batetik, arteen esparruan garatzen direnak (arte eszenikoak, zuzeneko musika, ikusizko arteak), eta, bestetik, kultura-industrietan kokatzen direnak (liburua, diskoa eta ikus-entzunezkoak, funtsean). Lehenengoetan, sorkuntzaren garapena autonomoagoa da; bigarrenetan, berriz, prozesu industrialagoen balio-katearen lehen maila dira.

**Merkatua.** Halaber, komeni da kontuan hartzea merkatuak nola eragiten duen lanbide artistikoetako enpleguaren antolaketan. Izan ere, zuzeneko ikuskizunen merkatuak (arte eszenikoak eta musika) sortzen dituen enpleguek ez dute zerikusirik ondasunen merkatukoekin (artelanak, konposizioak eta musika grabatua, testuak eta liburuak). Lehenengo kasuan, artistak kontratatu egin behar dituzte beren lana egin ahal izateko, eta, beraz, besteren konturako langileak dira (musika, antzerkia, dantza); bigarrenak, aldiz, norberaren konturako langileak izaten dira, eta enkarguen, obren salmentaren edo eskubideen mende daude. Nolanahi ere, nahiz eta legez kontratuak beharrezkoak izan, gutxitan egiten dira; esate baterako, zuzeneko musikan. Idatzizko kontratuak daudenean ere, maiz ez da egoten negoziazio-aukerarik. Askoz indartsuagoak diren eragile batzuek ezartzen dituzte baldintzak, eta horiek onartu beste aukerarik ez dago. Baliteke kontratu horietan egile-eskubideak nahitaez laga behar izatea, eskubideen lagapena zerbitzuak ematearekin konbinatzea edo eskubideak hirugarren batzuei lagatzea; eta horri guztiari gehitu behar zaio ez dagoela mekanismorik egile-eskubideen likidazioak kontrolatzeko. Edonola ere, artistek hobetu egin ahal izan dituzte merkatuan dituzten harremanak eta posizioa, beren eskubideak hobeto ezagutzen dituztelako, jardunbide egokiak ezarri direlako, elkarte profesionalak lan handia egin dutelako eta artistaren profila aldatu delako, aurreko hamarkadetako “bohemioren” izateatik “ekintzaile” izatera pasatuz.

5\_ Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan. [https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb\\_argit\\_emakumeak\\_2016/eu\\_def/adjuntos/Emakumeak\\_ikusizko\\_arteetan\\_eta\\_ikusentzunezkoan.pdf](https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_emakumeak_2016/eu_def/adjuntos/Emakumeak_ikusizko_arteetan_eta_ikusentzunezkoan.pdf)

6\_ Sorkuntzaren eta industriaren ikuspegitik antzerkia, dantza, liburu eta musikaren arloan genero-berdintasunaren egoera diagnostikoa EAEen.

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ka\\_genero\\_politikak\\_dok/eu\\_def/adjuntos/genero-programak-politikak-2019.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ka_genero_politikak_dok/eu_def/adjuntos/genero-programak-politikak-2019.pdf)

# 3\_Karrera artistikoen sarrera-logikak eta bilakaera

Atal honetan, sortzaileek diziplina artistikoetan egiten duten ibilbidea aztertuko dugu, karrera hasten denetik profesionalki finkatzea lortzen duten arte. Helburua da deskribatzea nola sartzen den pertsona bat artearen sisteman, nola funtzionatzen duen sistema horrek, zer oztopo aurki ditzakeen bere bizitza artistikoan eta zer aukera dituen oztopo horiek saihesteko.

Hasteko, zaila da ibilbide bat deskribatzea, helmuga zein den ere ez badakigu. Nolanahi ere, anormaltasun batean oinarritutako irudimenezko ibilbidea litzateke. Oso pertsona gutxik lortzen dute, izan ere, artista ospetsu bihurtzea. Ezinbestekoa da lanean egonkortasuna izatea eta etekin ekonomiko nahikoak eskuratzea, diru-sarrera publikoak eta pribatuak uztartuta, eta merkatuak izan behar du jarduerari eusteko bide nagusia. Planteamendu hori oso ezohikoa da, arrakasta komertziala duten artisten kasuan bakarrik betetzen baita. Artearen profesionaltasuna, zentzu hertsian sorkuntzarako dedikazio gisa ulertuta, ia ez da existitzen.

Kontuan izan behar da, gainera, ibilbideak ez direla izaten linealak, bihurgunetsuak baizik; eta ekuazioa ebaztea eragozten duten ezezagun gehiegi dituzte. Ibilbide artistikoak eta profesionalak bereiztea komeni da. Aintzatespen artistikoa erdiestea zaila bada ere, lortu daiteke, baina horrek ez du esan nahi artetik bizimodua atera daitekeenik. Hain zuzen ere, jarduera artistikoa aldizkakoa da gehienetan, eta aukera bakoitzarekin irteera-laukura itzuli behar du artistak, handik berriz hasteko.

Ibilbidea marrazteko beste faktore garrantzitsu bat prestakuntza artistikoaren eta garapen profesionalaren arteko lotura da. Garrantzitsua da prestakuntzaren bidez praktika artistikoari lotutako gaitasunak eta trebetasunak eskuratzea. Hala ere, norbait ez da artista bihurtzen prestakuntza jakin bat duelako: denboraren poderioz egiten da artista. Praktika, ofizioa eta ibilbidea behar dira. Kasu honetan, jardutea da obra sortzea, ekoiztea eta ezagutaraztea. Gainera, profesional bihurtzeko ezinbestekoa da jardueraren bidez etekin ekonomikoa ateratzea.

Kapituluaeren planteamenduak bi etapa bereizten ditu karrera artistikoan: hasierakoa eta larrialdikoa, eta aintzatespen eta sendotze profesionalekoa. Bestalde, kapituluak bereizi egiten ditu sorkuntza eta interpretazioa, kasu askotan biak nahasten badira ere.



## 3.1 Ibilbide profesionalak sorkuntzan

Atal honetan, sorkuntzarekin zuzenean lotutako lanbide-profilen ibilbideak deskribatuko ditugu; besteak beste, ikusizko artista, konpositore, musikari, koreografo, zinemagile, gidoilari eta idazleenak.

### Lehen urratsak


**Graduondoak eta hirugarren zikloa.** Musika klasikoaren munduan, profesionalizazioak derrigorrezko bidesari bat du: hirugarren zikloa. Eta irimotasun berarekin esan dezakegu bidesari hori atzerrian izatea komeni dela, espezializazio- edo prestigio-arrazoiengatik. Hain zuzen ere, graduondorik edo hirugarren ziklorik egiten ez dutenek askoz aukera gutxiago izango dituzte. Gainerako arloetan, irakaskuntzan jardun nahi dutenentzat izan ezik, ez da ezinbesteko baldintza. Musika herrikoi edo modernoaren arloan, pertsona batek ez du titulu ofizialik edo ikasketa arauturik behar profesional bihurtzeko. Hori da musika klasikoarekiko lehen desberdintasun handia. Ikus-entzunezkoetan, ez da titulazio profesionalik edo goi-mailako titulazio espezifikorik behar lan bat sortzeko. Horrek ez du esan nahi prestakuntza jasotzea garrantzitsua ez denik; baina edonork sor dezake, baliabideak eta gaitasunak izanez gero. Filmazio-talde teknikoetan parte hartzeko, ordea, ia ezinbestekoa da prestakuntza izatea. Literaturaren esparrua da, beharbada, denetan irekiena karrera profesional baten garapenaren ikuspegitik. Hasiera batean, edonork jardun dezake idazten; edonola ere, idazketarekin lotutako beste lanbide batzuk izaten dituzte idazleek: kazetariak, gidoilariak, letretako irakasleak...

**Sortzen hastea.** Behin prestakuntza-etapa akademikoa amaituta, laguntzak, bekak eta sorkuntza-egonaldiak eskuratu behar izaten dira karrera artistikoa hastea. Ezaugarriak eta eskakizunak desberdinak izanda ere, helburu bera dute laguntza guztiek: arte-sarea finkatzea eta testuinguru bat sortzen laguntzea. Ibilbide profesionalaren abiapuntua dira, beraz. Laguntza-programen

xedea da proiektuak babestea hainbat ikuspegitatik: ikerketa, espezializazioa, prestakuntza, sorkuntza eta ekoizpena, bitartekaritza eta komisariotza. Programa horiek nazioartekoak baldin badira, askoz hobeto. Edozein diziplina artistikotan nabarmentzen diren sortzaileen curriculumak aztertuz gero, ikusiko dugu atzerrian egon direla denak. Duela hogeita hamar urte, artista onenek bakarrik zeukaten aukera hori; beraz, asko kanpoan geratzen ziren. Orain, Erasmus programa hedatu eta beketarako aukerak zabaldu direnetik, aukera nahiko eskuragarria da, eta, horregatik, guztiz gomendagarria. Dena den, atzerrira joan gabe, gure inguruan ere lor daitezke bekak, mentoretzak eta egonaldiak sorkuntza eta ekoizpen artistikoko zentroetan. Zentro horiek egoiliarren eskura jartzen dituzte bitartekoak eta azpiegiturak, beren proiektu artistikoak, koreografikoak, eszenikoak, ikus-entzunezkoak edo musikalak garatu ahal izateko. Sortzen hasteko baldintzak ematen dituzte: lekua, baliabideak, kontaktuak eta denbora.

**Nork bere burua aurkeztea.** Behin obra sortzen eta ekoizten hasita, beren lanak ikusgai egiten laguntzeko programetara aurkezten dira artistak: lehiaketak, erakusketa ibiltariak eta artista "gazte, berri edo hasiberrie" zuzendutako sariak, edonolako izanda ere diziplina (artista plastikoak, musikariak, idazleak, zinemagileak...). Horrela hasi ohi dira beren burua ezagutzera ematen eta beren lana aurkezten.

Lehen esan bezala, obra erakusteaz gain, kontaktuak funtsezkoak dira filmaketa-taldeetan edo konpainietan sartzeko, erakusketa kolektiboetan parte hartzeko, proiektu eszenikoak edo musikalak egiteko edo, kultura-industrien kasuan (ikus-entzunezkoak, argialetxeak edo musikalak), dauden proiektuetan parte hartzeko edo autoprodukzioari ekiteko. Ildo horretatik, estudio profesionaletan egiten diren praktikak lorbide garrantzitsuak izan daitezke norbera ezagutzera emateko. Ibilbidean zehar, praktika aurre-profesionaletik jarduera profesionalera pasatzen da artista; entsegu-lokaletik agertokira; *underground* edo *off* zirkuitutik zirkuitu ofizialera; film laburretik film luzera; sorkuntza-zentrotik areto edo galeriara.



## Aintzatespena eta finkatzea

**Artearen sistemaren konplexutasuna.** Aintzatespena sari garrantzitsuen bidez lortzen da, erakunde “legitimatzaileen” erakusketa-zirkuituan sartuz, edo merkatura sartzen uzten duen industriaren parte bihurtuz. Ez dugu ahaztu behar artearen sistemaren berezko konplexutasuna, zentzu zabalean ulertuta; eragile instituzional zein indibidualak daude sistema horretan (komisarioak, zuzendariak edo kritikariak, programatzaileak, jaialdietako arduradunak, editoreak, etab.), eta haiek legitimatzen dute artista. Diziplina guztietan gertatzen da gauza bera. Testuinguru bakoitzean eragile jakin batzuk daude, eta hainbat modutan esku hartzen dute.

- **Sariak eta ospea.** Karrera artistikoak finkatzen laguntzeko programen aldean, hauek dira desberdintasunak: ospea, beken eta laguntzen zuzkidurak, erreferentziako zentro nagusietarako sarbidea eta nazioarteko izaera nabarmena. Euskal erakundeen testuinguruan, nabarmentzekoak dira Gure Artea saria edo Euskadi Literatura sariak, aparteko proiektuetarako trukerako eta kanpo-mugikortasunerako programak (Etxepare Institutuarenak, esaterako) edo sorkuntza eta kultura garaikideko zentroek (BilbaoArte, Tabakalera eta Azkuna Zentroa) antolatzen dituzten egonaldiak.
- **Merkatua.** Galeria ospetsuetan norberaren lanak erakusteko, argitaletxe edo diskoetxe handiren batean obrak argitaratzeko edo salmentetarik eta eskubideetatik soilik bizitzeko aukerei dagokienez, ideal ia lorrezinak dira guztiak; eta helburuok lortuta ere, horrek ez du bermatzen presentzia jarraiturik, ez eta inolako planteamendurik ere epe luzera. Are gutxiago euskarazko sorkuntzan, haren merkaturia txikiagoa dela kontuan hartuta. Nolanahi ere, ikuspuntu zabalago batetik begiratu ahal zaie merkatuei. Musika, irudia, testua eta artea leku guztietan daude, ez bakarrik diskoetan, kontzertuetan, liburuetan, filmetan, antzezetan edo erakusketetan. Hortik bizitzeak esan nahi du (edo esan nahi dezake) gai izatea monetizatzeke sorkuntza- eta konposizio-lanak, erabilera eta formatu askotarako. Eta, jakina, euskaraz ere bai.
- **Artista-ekintzaileen irudia.** Ulertu behar da oso artista gutxi bizi daitezkeela beren obra, disko, liburu, film edo antzezetatik bakarrik; arrakasta eta porrota uztartzen ditu lanbideak. Eta lan horretatik bizimodua ateratzeko, ez da nahikoa talentua izatea eta aitopen artistikoa lortzea. Profesionalizazioa lortzeko, artistak ekintzaile ere izan behar du. Hori ez da agindutzat hartu behar, baina errealitate egokitu beharra dago. Hau da gakoa: talentuaren bidez gutxieneko errentagarritasun bat lortzea. Ez da lan erraza, baina ikasi daiteke. Beste ekintzaile batzuk gaitzeko egiten dena abiapuntutzat hartuta, hain zuzen, baina sektore bakoitzaren berezitasunak kontuan izanda. Eta ibilbide horretan, “ofizioa” hartzeaz gain, eta alde batera utzita sistema artistikoari lotutako kontuak (programazio gehiago, formatu txikiko erakusle pribatuentzako laguntzak, artistaren estatutua, etab.), ekintzaile da gakoa. Are gehiago une honetan, non artista gehienek autoprodukzioa jotzen baitute, ohiko balio-katetik harago (eten egin da). Neurri handi batean, ingurune digitalagatik gertatu da hori. Paradigma berri horrek profil berriak ere eskatzen ditu.

**Irakaskuntza eta bitartekaritza.** Irakaskuntza izan da sormen-jardueran aritzeko eta aldi berean diru-sarrera batzuk bermatzeko formularik ohikoena. Garrantzitsua da irakaskuntza ez hartzea gaitz txikitzat. Kontuan izan behar da, halaber, negozio-eredu berriak zabaltzen ari direla ingurune digitaleko irakaskuntzari lotuta. Demokrazia kulturalaren logikan, irtenbide jakin batzuek badute merkatua, eta beharrezkoak dira gainera: bitartekaritza, komisariotza, tailerrak eta abar. Irakaskuntza akademikoaren ordeztu aukerak dira, talentua eta jakintza monetizatze aldera. Beste jarduera batzuekin ere bateragarriak dira, eta berariazko prestakuntza eskatzen dute.

**Aukera-berdintasuna.** Azkenik, berez zaila bada artean, musikan, ikus-entzunezkoetan, literaturan edo arte eszenikoetan profesionalizatzeko ibilbidea, oztopoak are handiagoak dira emakume sortzaileentzat. Emakumeek zenbait sektoretan duten presentziari buruzko txostenak kontsulta daitezke, Kulturaren Euskal Behatokiaren eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren enkarguz eginak. Emakumea bazara artista profesional izateak dakartzan zailtasun erantsiei buruzko begirada kritikoak dira.

aritzea konpainia profesional edo produktore batean. Arlo honetan, Pabellón 6ko Gazte Konpainia nabarmendu behar dugu. Pabellón 6ko antzerki-laboregiaren ekimenez sortua, plataforma horrek lehen esperientzia profesionala izateko aukera ematen die arte eszenikoetan trebatutako gazteei, eskarmentu handiko taldeek gidatuta. Musika klasikoan, Euskadiko Gazte OrkestraK-EGO- zeregin garrantzitsua betetzen du, orkestra-prestakuntza ematen baitie euskal instrumentista gazteei. Orkestra-prestakuntza ezin hobea lortu nahi du, egitura sendo bat sortu nahi du instrumentista gazteen arte- eta giza garapena sustatu ahal izateko, eta mundu profesionalean sartzeko goi-mailako baliabidea da. Aipatzekoa da, baita ere, telesail batzuk etorkizuneko aktoreen harrobia direla, bere garaian Goenkale izan zen bezala.


**Zirkuituak.** “Off” jaialdi eta zirkuituek ematen dute lehen ekoizpenak erakusteko aukera; sormen-zentroekin lotuta egon ohi dira zirkuitu horiek. Adibideen artean daude Aulestiko ADEL topaketak, edo zenbait areto alternatibo (esaterako, Gasteizko Baratza).

## 3.2 Ibilbide profesionalak interpretazioan

Interpretazioaren barruan sartzen diren lanbideen artean aktoreak, dantzariak, musikariak eta abeslariak daude. Profil horietan, sormenezko osagaia “artista sortzaile” izenekoena bezain garrantzitsua da. Lan egin ahal izateko kontratatu egin behar dituztelako bereizten dira lanbide horiek; hortaz, besteren konturako langileak dira (musika, antzerkia, dantza, ikus-entzunezkoak).

### Lehen etapak

**Gazte-konpainiak edo taldeak.** Prestakuntza-etaparen ondoren, konpainia gazte aurre-profesional bat sortzea edo bertan parte hartzea izaten da lanbidean sartzeko atea; edo, bestela, paper txikiak egiten hastea edo merezidun gisa





## Finkatzea

**Moldakortasuna.** Sortzaileen kasuan artista-ekintzailearen irudia nabarmendu dugu; bada, interpreteen kasuan, beren moldakortasuna azpimarratu behar da. Aktoreek antzerkian, zineman eta telebistan egiten duten lan; musikariek, berriz, kontzertuak ematen dituzte eta hainbat talderekin jotzen dute, bai proiektu propioetan, bai beste batzuekin lankidetzan. Beren karrerak finkatzean direnean, aukera handiagoak dituzte paper edo proiektu batzuk aukeratu eta beste batzuk baztertzeko.

**Ekoizpenerako eta erakusketarako laguntzak.** Kasu honetan, partaidetza publikoaren bidez lortu behar da ekoizpen- eta erakusketa-sare sendoa sortzea, diziplina guztietako interpreteek lana izan dezaten. Hau da konpainiak finkatzeko gakoetako bat: ekoizpena bideratutako laguntzak ematea. Zenbat eta sendoagoak izan konpainiak, orduan eta aukera gehiago izango dituzte proiektuak sortzeko eta interpreteei egonkortasuna emateko. Baina horrek ez du zentzurik proiektu horiek programatzea ahalbidetzen duen erakusketa-sarerik ez badago. Arte eszenikoen kasuan, erakusketa-sistema publikoa da nagusiki. Honako hauek nabarmendu behar dira: aretoen sarea (SAREA), jaialdiak (kalekoak zein beste espezialitate batzuetakoak), azoka profesionalak (konpainiak, banatzaileak eta programatzaileak elkartzen dira), eta egonaldiak areto eta sorkuntza-zentro publikoetan. Horri guztiari esker, antzerkiko nahiz dantzako zenbait konpainia finkatu dira. Aipatzekoa da, halaber, ekoizpenerako laguntzetan bertan zirkuitu itunduaren baldintza jasotzen dela, ekoizpen horiek ikusgarri izan daitezen gutxieneko antzezpenak ziurtatzeko. Musikan, programazioaren zati garrantzitsu bat ere publikoa da. Zinemari dagokionez, telebista publikoaren efektu eragilea ere azpimarratu behar da, bai eta jaialdi batzuen ere (Zinemaldia eta Zinebi, adibidez).

**Dantzaren espezifikotasunak.** Dantza klasikoaren eta dantza garaikidearen ibilbideak desberdinak dira; bestalde, fisikoki egoera ezin hobean egon behar du dantzariak, eta hori gutxi balitz bezala, karrerak denbora-muga bat du, koreografia-lana salbuetsita. Dantza garaikidean ibilbidea zaila da, bere hauskortasunagatik eta jende gutxik diharduelako diziplina horretan; dantza klasikoan aritzeko, aldiz, ezinbestekoa da konpainia bateko kide izatea, eta dantzariak atzerrira joan behar izaten du bere ibilbide profesionala garatzeko.

**Proiektuak.** Musika klasikoaren munduan profesionalizazioaz ari garenean, orkestra bateko kide izatearen aukera datorkigu burura. Hori da irtenbide ohikoena, baina ez du zertan bakarra izan, testuingurua kontuan izanik (munduko onenekin lehiatzen dira musikariak). Europan ez dago lanerako mugarik, eta herrialde gehienek tradizio eta prestakuntza musikal klasiko sendoa dute. Bide bakarra orkestrarena delako ideia hori baztertu beharko genuke, eta proiektuetan ere pentsatu: batetik, gogoratu behar da orkestrez gain bestelako formazio posibleak daudela. Eta bestetik, beste formatu batzuk daudela kontzertu-aretoko kontzertuez gain. Horretarako, nahitaezkoa da interpreteek garapen profesionalari buruzko prestakuntza jasotzea, kontzeptuak eta tresnak berenganatu ahal izateko.

**Elkarte profesionalen eginkizuna.** Aipatzekoa da, halaber, sortzaile eta interprete eszeniko eta musikalen elkarte profesionalak duten garrantzia. Izan ere, pertsona horien interes kolektiboak defendatzen dituzte, eta bultzada-, prestakuntza- eta aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen dizkiete.



# 4\_Egungo laguntza-mekanismoak

Atal honek azterketaren bigarren helburuari erantzuten dio: aztertzea zer tresna dauden profesionalizazioari laguntzeko eta antzematea zer gabezia egon daitezkeen, bai balio-katearen ikuspegitik, bai artisten ibilbide profesionalean zehar.

Jakin nahi dugu zer laguntza jaso dezaketen artista hasiberriek beren lehen urratsak emateko eta zirkuitu profesionalean sartzeko, bai eta karrera sendotu ahal izateko ere. Azken batean, diagnostikoa egin nahi dugu karreraren garapenaren fase bakoitzean, arte-diziplina guztiak alderatuta. Horren bidez, politika publikoak bideratu nahi ditugu merkatuan dauden hutsuneak betetzera, eta karrera artistikoen profesionalizazioa bultzatzera.

Eremu bakoitzeko tresna garrantzitsuenak identifikatu ditugu, laburpen sakonik egin gabe. Bi multzo bereizten dira: alde batetik, egiturazko laguntza ematen duten eragileak, eta bestetik, profesionalizatzeko bidean eragina duten alderdi jakin batzuk indartzeko programa eta zerbitzu espezifikoak. Informazio gehiago jasotzeko, ikus [Sorkuntza sostengatzeko sistema baterantz Euskin](#) dokumentua, Karraskan-ek egina Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarentzat.

## 4.1\_Ikusizko arteei laguntzeko tresnak

Hainbat zerbitzu eskaintzen dituzten laguntza-egitura egonkorren artean, arte plastikoetan eta ikusizkoetan espezializatutako hauek nabarmentzen dira, zeharkako ikuspegia badute ere:

- Azala kreaio espazioa
- Azkuna Zentroa
- Bilbao Arte
- Bitamine Faktoria
- Kutxa Kultur
- Tabakalera

Ikusizko arteetan sorkuntza bultzatzeko programak edo baliabideak eskaintzen dituzten beste ekimen batzuk ere badaude, besteak beste: Amiarzte, Ant Espacio, Artgia, Bilbao Art District, Bilbao Formarte, Bulegoa Z/G, Consonni, Okela, Arabako Eskualdea programa eta Zas.

Hurrengo taulan, arte plastikoetara eta ikusizkoetara laguntzeko sortutako tresna nagusietako batzuk agertzen dira.



	Prestakuntza	Ikerketa Sorkuntza	Ekoizpena Erakusketa	Aintzatespena Legitimazioa
<b>Lehen urratsak</b>			Joven Irama joven, Lumbreras galeria	
	Komisario berriak		Montehermoso deialdiak	
	Guggenheim egonaldiak	Otaola beka	Ertibil-Bizkaia programa	
	BFAren sormenerako beka (1975etik aurrera jaiotakoentzat) + Barriek			
	GFaren beka		GFaren Artista Berriak programa	
<b>Finkatzea</b>	Praktika Artistikoen Institutua	EJren dirulaguntzak arte plastiko eta ikusizkoentzat Eremuak Programa		
		Wroclaw-Etxepare egonaldiak		Gure Artea saria
		Mugikortasunerako Etxepare dirulaguntzak		
		AZ egonaldi artistikoak		
		Artista AZ kideak programa + ikertzaile kideak		

Tresna horiek aztertuta, honako ondorio hauek atera ditugu:

- Programa batzuetan, ez da bereizketarik egiten prestakuntzaren, sorkuntzaren, ekoizpenaren eta erakusketaren artean. Batzuk horrela pentsatuta daude, baina joera nagusia da hesi horiek apurtzea eta testuinguru bat sortzea **ikuspegi sistemiko** batetik (adibidez, Eremuak programa).
- Gauza bera esan daiteke lehen urratsak ematen ari diren artisten eta ospea hartu dutenen arteko bereizketari buruz: badaude artista hasiberrientzako programa espezifikoak, baina deialdi garrantzitsu askotan ez da bereizketarik egiten. Beraz, mota guztietako artistak sartzan dira lehiaketan, ibilbidea edozein izanda ere.
- **Sorkuntza- eta ekoizpen-zentroen eskaintza zabala** dago, baliabideak eta bitartekoak hainbat formatutan eskaintzeko. **BilbaoArteren** eginkizuna azpimarratu behar dugu; bekak, egonaldiak eta mugikortasun-, prestakuntza- eta aholkularitza-programak eskaintzen ditu.
- Sorkuntza-zentroen eta artisten arteko **lankidetzaprogramak** zabaltzen ari dira, sustapena egiteko eta laguntzeko modu berritzaile batean oinarrituak. Horren adibide da Azkuna Zentroaren Artista Kideak programa, ospea lortu duten artistei zuzendua. Lankidetzari hori bi aldeentzat da onuragarri: artistak ekarpena egiten dio programazioari, formatu tradizionalak alde batera utziz, publikoekin lan egiten du eta zentroa hurbiltzen du tokiko edo nazioarteko beste testuinguru batzuetara; eta zentroak, bere aldetik, beharrezko baliabideak eta guneak eskaintzen ditu, sormen-prozesurako beste denbora batzuk emanez eta esperientzia tekniko-profesionala partekatuz.
- Museoek eta arte-zentroek funtsezko eginkizuna betetzen dute **artista ospetsuekin lankidetz-formulak** bilatzeko, ahalik eta esparru eta formatu gehienetan. Bereziki azpimarratzekoa da **Artiumen** lana, arte garaikidearen euskal zentro-museoa delako, eta **Tabakalerarena**, sortzaileentzako gunearen bitartez. Nabarmentzekoa da, halaber, sortu berri den Praktika Artistikoen Institutua. Eremu instituzionalean gertatzen diren harreman profesionalak ezagutzaren ekoizpena eta transmisiora zabaltzeko nahiaren emaitza da institutuaren ikasketa-programa.
- Karrera artistikoei laguntzeari dagokionez, orain arte gutxi bultzatu da **esparru publikoaren eta pribatuaren (galerien) arteko lankidetzari**.

- Hobetu beharreko gauzak antzeman ditugu, halaber, artista hasiberriek beren karrera kudeatzen laguntzeko jasotzen duten **prestakuntza eta aholkularitza**. Egungo programak arlo artistikoan espezializatuta daude; hala ere, karrera batean ezinbestekoa da lanbidearen kudeaketarekin lotutako alderdiak ezagutzea, hala nola finantzazioa, kontratazioa, jabetza intelektuala edo komunikazioa.

## 4.2 Arte eszenikoei laguntzeko tresnak

Hainbat zerbitzu eskaintzen dituzten laguntza-egitura egonkorren artean, arte eszenikoetan espezializatutako hauek nabarmetzen dira, zeharkako ikuspegia badute ere:

- Azala kreaio espazioa
- Azkuna Zentroa
- Baratzeta Aretoa
- Bilbao Eszena
- Dantzagunea
- Garaion Sorgingunea
- Harrobia
- Kunarte
- La Fundación
- Zirkozaurre
- SAREako zenbait gune (Zornotza, Durango, Gernika...)

Badira, halaber, arte eszenikoen sorkuntzan laguntzeko programak edo baliabideak eskaintzen dituzten beste ekimen batzuk ere, besteak beste: Artedrama, Karola Zirkoa, Punto de Fuga gunea, Kulturleioa, Niessen, Pabellón 6, Sarobe, Utopian eta Zubi.

Hurrengo taulan arte eszenikoei (antzerkia zein dantza) laguntzeko dauden tresna nagusietako batzuk agertzen dira.



ANTZERKIA	Prestakuntza	Ikerketa Sorkuntza	Ekoizpena Erakusketa	Aintzatespena Legitimazioa
<b>Lehen urratsak</b>	BFAren bekak eta laguntzak prestakuntza eta hobekuntzarako (1990etik aurrera jaiotakoentzat)	Egonaldiak (BAD, Baratza, La Fundición, Zubi) Zirkozaurreren programak	Underground antzerki-jaialdiak (Zurrunbilo, Atxiki, Matadeixe, Eztena)	
	AFAren bekak	Antzerkigintza berriak		
	GFAren bekak			
	Pabellón 6 Gazte Konpainia			
		EJren laguntza antzerkirako testuentzat		
	Harrobia		EJren laguntzak ekoizpenerako, banaketarako eta erakusketarako	Kutxa sariak (testu dramatikoak)
<b>Finkatzea</b>	ArteDrama Euskal Laborategia		BFAren dirulaguntzak antzerki-zabalkunderako	Premio Donostia Antzerki Saria
			Mugikortasunerako Etxepare dirulaguntzak	Café Bilbao antzerki laburreko gidoien saria
				Pabellón 6 antzerki laburreko sariak
				Ercilla sariak





DANTZA	Prestakuntza	Ikerketa Sorkuntza	Ekoizpena Erakusketa	Aintzatespena Legitimazioa
<b>Lehen urratsak</b>	BFAren beka eta laguntzak prestakuntza eta hobekuntzarako (2000tik aurrera jaiotakoentzat)	EJren dirulaguntzak sorkuntza koreografikorako		
	AFAren eta GFAren beka prestakuntza espezializaturako espezializada	Sortutakoak Dantzagunea egonaldiak		
	Dantzan Bilaka (beka + mentorizazioa)			
		Azala eta La Fundación egonaldiak	EJren laguntzak ekoizpenerako, banaketarako eta erakusketarako	Hainbat sari daude tokiko azoka edo jaialdietan (Umore Azoka; Dferia/Donostia Saria; Act jaialdia...)
		Azkuna Amphytrion egonaldiak		
<b>Finkatzea</b>			Mugikortasunerako Etxepare dirulaguntzak	

Tresna horiek aztertuta, honako ondorio hauek atera ditugu:

- Nabardurak egin badaitezke ere, lehen begiratuan, egungo tresnak laguntza-premiei jarraituz daude **egituratuta** lehen urratsetan eta karrerak finkatzeko etapan: hasierako etapetan, laguntzak prestakuntza espezializatura eta sorkuntzara bideratzen dira; ibilbide luzeagoko etapetan, berriz, ekoizpena eta bira edo zirkuituetara.
- Arte eszenikoek **laguntza-egitura instituzionalizatu** garrantzitsua dute. Egitura horretan, erakunde publikoek parte hartzen dute prestakuntza- eta ekoizpen-zentroen bidez (Dantzerti, BilbaoEszena, Dantzagunea...); bekak eta laguntzak ere badaude, bai eta erakusketa-gune eta zirkuituak ere, SAREAK koordinatuta; bestalde, erakunde pribatuak edo hirugarren sektorekoak aipatu behar dira (konpainiak, banatzaileak, sorkuntza-guneak eta elkarte profesionalak). Hala, egun dauden programei esker asetzen dira antzerkian edo dantzan profesionalki jardun ahal izateko behar nagusiak: sortzeko lekuak, proiektuak eraikitzeko laguntzak eta lana erakusteko zirkuituak.
- Horri esker, halaber, babes handia jasotzen du talentu berriak sortzeko eta karrera artistikoak sendotzeko behar den **prestakuntzak** edo laguntzak. Ildo horretatik, zenbait zentrok laguntza- eta mentorizazio-zerbitzuak eskaintzen dituzte (esaterako, Harrobia, La Fundación, Azala edo Baratza guneek).
- Bestalde, konpainientzako **egonaldi** egonkorak oso emaitza onak ematen ari dira. Kasu batzuetan, funtsezkoak izan dira konpainiak profesionalizatzeko.

## 4.3 Musikari laguntzeko tresnak

Ibilbide artistikoei buruzko kapituluan adierazi dugun bezala, bi musika mota bereizi behar dira: alde batetik, klasikoa, eta, bestetik, herrikoa edo modernoa. Musika klasikoak prestakuntza espezializaturia izatea eskatzen du, eta, beraz, musika-eskolen, kontserbatorioen eta Musikeneren inguruan araututa eta egituratuta dago. Erakunde horiei bi Orkestra Sinfonikoak eta Euskadiko Gazte Orkestra gehitu behar zaizkie. Musika herrikoa edo modernoan, prestakuntzaren baldintza hori ez da ezinbestekoa, eta, hortaz, laguntza-tresnak ere desberdinak dira.

Atal honetan beste egitura eta tresna mota batzuk azalduko ditugu. Hainbat zerbitzu eskaintzen dituzten laguntza-egitura egonkorren artean, musikan espezializatutako hauek nabarmentzen dira, zeharkako ikuspegia badute ere:

- Buenawista Prolleckziom's
- Kutxa Kultur

Badira, halaber, musika-sorkuntzan laguntzeko baliabideak eskaintzen dituzten beste ekimen batzuk ere, besteak beste Bilborock eta Taldegune. Hurrengo taulan, musikari laguntzeko dauden tresna nagusietako batzuk agertzen dira:



	Prestakuntza	Ikerketa eta sorkuntza	Ekoizpena eta erakusketa	Aintzatespena eta legitimazioa
<b>Lehen urratsak</b>	BFAren bekak eta laguntzak prestakuntza eta hobekuntzarako (1990-1995 artean jaiotakoak edo beranduago jaiotakoak, modalitatearen arabera)		Kutxa Kultur Musika programa	Bilbao Hiria pop-rock lehiaketa
	AFAren bekak			
	GFAren bekak			
<b>Finkatzea</b>	Euskadiko Gazte Orkestra	EJren laguntzak musika-konposiziorako		
		EJren laguntzak musika-jarduera profesionaletarako		Musika Bulegoa sariak
		AZ egonaldiak	Etxepare laguntzak ezohiko bira eta kontzertuetarako	

Tresna horiek aztertuta, ondorio hauek atera ditugu:

- Musikan, beste esparru artistikoetan ez bezala, inbertsio publiko gehiena **hezuntza-egituretan** egiten da (musika-eskolak, kontserbatorioak, Musikene), eta hiru orkestretan (bi profesional eta EGO).
- Musika klasikoaren arloan, **EGO** etorkizuneko musikari profesionalen harrobia dela azpimarratu behar da. EGOen entzunaldiak egiten dituzte 16 eta 27 urte bitarteko musikarientzat, baldin eta gutxienez gradu profesional bat egiten ari badira, edo ikasleak izanda musika-eskola batean matrikulatuta badaude. 1997an sortu zenetik, 1.500 gaztek baino gehiagok hartu dute parte musika- eta kultura-proiektu estrategiko horretan; haietako askok musika-ibilbide garrantzitsua egin dute, eta gaur egun Espainiako eta Europako orkestra ospetsuenetako batzuetan daude.

- Edozein konpositorek eska ditzake Eusko Jaurlaritzaren musika-konposizioetarako laguntzak; hala ere, gazte eta emakumeentzako gutxienekoak zehazten dira klausula batean, betiere aplikazio orokorreko irizpideek horretarako aukera ematen badute.
- **Prestakuntza eta aholkularitzaren** arloan kontuan hartu behar da elkarte profesionalen eskaintza, hala nola Euskal Herriko Musika Bulegoarena. Sektoreko eragileen arteko topaketarako eta lankidetzarako gunea da. Horrelako elkarteak izan beharko lirateke musika-karrerak profesionalizatzen laguntzeko neurrien sostengua.
- Profesionalizazioari laguntzeko beste ekimenetako bat BIME Pro da, nazioartean negozio-aukera berriak sortzeko topaketa profesionala.

## 4.4 Ikus-entzunezkoei laguntzeko tresnak

Ikus-entzunezkoak babesteko nahiz sustatzeko egiturak eta programak Donostian daude, eta honako erakunde hauek dituzte ardatz: Tabakalera, Zinemaldia, Filmategia, Zineuskadi eta Elias Querejeta Zine Eskola. Proiektu horietan bat egiten dute ikerketa, prestakuntza, sorkuntza, ekoizpena eta erakusketa oinarri duten ikuspegi osagarriek, eta horregatik, haztegi ezin hobea dira artista hasiberriei laguntzeko eta karrera profesionalak sendotzeko.

Eraikin berean daude guztiak, beste zerbitzu batzuekin batera (adibidez, Zineuskadi edo Europa Sortzailearen Desk Media). Tabakalerak, kultura garaikideko zentroa izanik, sorkuntzarekin lotutako beste adierazpen eta praktika batzuetan jartzen du arreta. Hala ere, zinema eta ikus-entzunezkoak beti izan dira bere lehentasunezko jardun-arloetako bat. Zinemaldiari dagokionez, eta bat etorritz haren apustu estrategiko orokorrarekin (zinemagileak prestatzeko eta profesionalizatzeko erreferentziazko plataforma bihurtu nahi du nazioartean), Tabakalerak eta Zinemaldiak elkarlanean antolatzen dute Nest saila (Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketa), bai eta Ikusmira Berriak programa ere, egonaldietarako eta proiektuetarako. Horrez gain, EQZE kontzeptualizatu eta abian jarri dute.

Hona hemen, laburbilduta, ekimen garrantzitsuenak:

	Prestakuntza	Ikerketa Sorkuntza	Ekoizpena Erakusketa	Aintzatespena Legitimazioa
Lehen urratsak	Larrotxene-Intxaurrondo			
	Noka mentoring-Tabakalera			
Finkatzea		Sormen Beka DA!		
		EJren laguntzak gidietarako	Kimuak programa EJren dirulaguntzak ikus-entzunezkoen ekoizpenerako eta proiektuen garapenerako	
	Ikusmira berriak			
	2deo Tabakalera			
			Etxepare dirulaguntzak nazioartekotzeko bidaia-poltsetarako	
	MediaDESK Euskadi prestakuntza		Zinemira -Zinemaldia	Euskal zinemaren saria
			ZineBi	Euskal zinemaren saria



Tresna horiek aztertuta, honako ondorio hauek atera ditugu:

- **Kimuak programak** lorbide gisa jokatzen du zinemagile gazteen ibilbidean, haren bidez film laburrak munduan ezagutzera ematen baitituzte. Programak ospea hartu du bere katalogoagatik eta aitzindaria delako euskal sorkuntzaren nazioartekotzean, eta nazioarteko aintzatespen ugari lortu ditu bere ibilbidean.
- **Noka mentoring egonaldien** programa, emakume zinemagileen karrerak garatzeko eredia, salbuespena da beste sektore batzuekin alderatuta.
- **Ikusmira Berriak** programaren helburua da ikus-entzunezko sorkuntza sustatzea, eta bere programak bi ardatz ditu: Prestakuntza eta ekoizpena. Urtero egonaldiak antolatzen ditu proiektuak garatzeko, eta horrez gain, laguntza-plan bat du ikus-entzunezko lan berritzaileak ekoizteko. Sortzeko lekua, testuingurua eta denbora eskaintzea da egonaldiaren xedea.
- Tabakaleraren 2de0, euskarazko ikus-entzunezko edukien laborategia, sektoreko profesionali zuzenduta dago. Laguntza ekonomikoa eta bestelakoa eskaintzen

du **ikerketari esperimenterako**, ikus-entzunezko edukietan oinarritutako proiektuen garapena eta prototipatzea sustatze aldera.

- **Gidoi** zinematografikoak sortzeko laguntzak 30 urtetik beherakoentzat dira. Oso lagungarriak dira sorkuntza mota honetarako, bai lehen urratsetan, bai gidolari ibilbidea finkatzeko.
- Sorkuntzako film laburren **ekoizpenerako laguntzak** lorbidea dira zinemagile gazteentzat, nahiz eta berariaz gazteei zuzenduta ez egon.
- Sortzaileen nazioartekotzearen ikuspegitik, bidaia-poltsei esker zuzendariak, aktoreak edo gidolariak nazioarteko zinemaldietan parte har dezakete, filmen bat aurkeztu edo ordezkatzeko.
- Aintzatespenari dagokionez, Zinemaldiko **Zinemira** saila da euskal zinemaren tokiko erakustoki nagusia. Gainera, euskal zinemagintzaren saria ematen dute sail horretan. Euskal sorkuntzak ere badu bere lekua Zinebin.

## 4.5\_ Literatura-sorkuntzari laguntzeko tresnak

Badira, halaber, literatura-sorkuntzari laguntzeko programak edo baliabideak eskaintzen dituzten ekimenak, hala nola Consonni.

	Prestakuntza	Ikerketa Sorkuntza	Ekoizpena Erakusketa	Aintzatespena Legitimazioa
<b>Lehen urratsak</b>		Nekatoenea egonaldiak		
		Hugoenea egonaldiak		Ahotsenea Durangoko Azoka
		AZ komiki egonaldiak		
<b>Finkatzea</b>		EJren laguntzak sorkuntza grafikorako	Ettxepare dirulaguntzak nazioartekotzeko bidaia-poltsetarako	Azkuna Zentroaren Gutun Zuria
		EJren laguntzak euskarazko ipuinak eta eleberriri motzak sortzeko		Euskadi Literatura Sariak

Literaturaren arlo honetan, profesionalizatorako laguntza publikoak beste sektore batzuetan baino txikiagoak dira. Hala ere, ekimen hauek nabarmentzen dira:

- **Euskal Idazleen Elkartearen** zeregina euskarazko sorkuntza-egonaldiak bultzatzen, beste erakunde batzuekin lankidetzan.
- Euskarazko idazle gazteek aukera dute hilabeteko egonaldia eskatzeko **Nekatoanean** (Hendaia). EKE, EIE eta CPIE Euskal Itsasbastera erakundeen artean antolatzen da ekimen hori.
- Pasaiaiko Udalak eta Euskal Idazleen Elkarteak **Hugoenea** (Idazlearen etxea) izeneko proiektua jarri zuten abian Pasai Donibanen. Literatura-sorkuntza sustatzea du xede ekimenak, eta euskaraz eta beste hizkuntza gutxitu batzuetan idazten dutenek erabili dezakete etxea.
- Eusko Jaurlaritzak ere sorkuntza literario eta grafikoak babesten du, berariazko **laguntzen** bidez.
- **Ettxepare Institutuak** bidaia-poltsak antolatzen ditu literatura-sektoreko eragileentzat (idazleak, ilustratzaileak, itzultzaileak eta editoreak), nazioarteko literatura-ekitaldietan parte hartzeko, baldin eta ekitaldi horietan libururen bat aurkeztu edo ordezkatu behar badute, literatura-sorkuntzaz jardun behar badute edo euskal ordezkari gisa badoaz.
- Zabalkundeari eta aintzatespenari dagokionez, azpimarratu beharrekoak dira Durangoko Azoka (euskarazko sorkuntzarako plaza nagusia) eta Euskadi Literatura Sariak.

## 4.6 Zeharkako informazio- eta aholkularitza-programak

Deskribatutako beste tresnen aldean gutxi erabiltzen diren arren, beherago azaltzen diren prestakuntza- eta laguntza-zerbitzuak ere badaude profesionalizazioari laguntzeko. Esan behar da haietako batzuk enpresentzat pentsatuta daudela; edonola ere, sektoreen ezaugarriak kontuan hartuta, enpresak indartzeko ezinbestekoa da


karrera artistikoen profesionalizazioa bultzatzea. Eremu bakoitzean aipatutakoez gain, honako hauek ere nabarmendu behar dira:

- **KSI Berritzaile**, Eusko Jaurlaritzaren programa, euskal kultura- eta sormen-industrien arloko enpresei zuzendua. Proiektu berrietarako aukera-espazioak sortzea eta garatzea du xede, bi jarduera ardatz hartuta: berrikuntza teknologikoa eta antolamendu-ereduaren eta enpresa-egituraren berrikuntza. 2020an EGOKITU zerbitzua aktibatuta da, KSletako enpresei orientazioa eta laguntza emateko. Zerbitzu horrek irtenbideak bilatzen ditu gai hauekin lotutako erronken inguruan: negozio-eredua aldatzeko premiak, finantzaketaren kudeaketa eta digitalizazio-aukerak.
- **EKKI**, bere kideen, pertsona sortzaileen edo eskubideen titularren jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzeko erakundea.
- **KBulegoa**, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako zerbitzua. Kultura sektorean lan egiten duten pertsona, talde eta erakundeei –amateurrak edo profesionalak izan daitezke– zuzendutako informazio eta laguntzarako bulegoa. Kultura-testuinguruko beharriaz erantzuten diete, eta informazioa eta aholkularitza ematen dute izapideen kudeaketan, sorkuntza-prozesuetan eta sektorea bistaratzeko zereginetan.
- **Kulturaraba**, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak bultzatutako zerbitzua: Bi programa eskaintzen ditu. Lehena, Bulegoa, kultura-erakundeentzat eta profesional autonomoentzat da. Informazioa eskaintzen du, kultura- eta sormen-proiektuen garapenarekin eta kudeaketarekin zerikusia duten dirulaguntza, deialdi eta beste gai batzuei buruz, bai eta eguneroko jardunarekin lotura duten gaiei buruz ere; gainera, kultura-proiektuen garapenean eta sektorea dinamizatzen laguntzen du. Bestalde, profesionali edo profesionalizazio-prozesuan daudenei zuzendutako prestakuntza-programa bat ere badute.
- **Urola Kosta Eskualde Sortzailea**, profesionalizatorako prestakuntza-programa espezifikoak.

# 5 Beharrak eta proposamenak ikuspegi publikotik

Txostenaren aurkezpenean azaldu denez, lotura estua dago artisten profesionalizazioaren auziaren eta Behatokiak berriki egindako bi azterlan hauen artean: *EAEko goi-mailako arte-irakaskuntzen analisia eta Artistentzako eta kultura-arloko profesionalentzako etorkizuneko aukerak -Artistaren Estatutu berriaren harira-*.

Profesionalizazioa etapa akademikoaren ondoren hasten da; eta arauak markatzen dituzte, lanaren eta zergen ikuspegitik, sortzaileen lan-baldintzak. Egoera horrek ez dio erantzuten kultura-sektorearen berezitasunei, indarrean dagoen legegintza-esparrua kontuan izanik. Horregatik, azterlanaren edukiak zentzu osoa hartzen du testuinguru horretan: Irakaskuntza artistikoak-Profesionalizazioa-Artistaren Estatutua.



**Premisa bat.** Lehenik eta behin, gauza bat garbi utzi behar da: hezkuntza-sistemak artista gehiago sortzen ditu sektore profesionalak har ditzakeenak baino. Agian erradikalegia den baieztapen horretatik ez da ondorioztatu behar artistak sobera daudenik; hala ere, onartu behar dugu ikasketak amaitu dituzten pertsona guztiak ezingo direla bizi sorkuntzatik. Denboran zehar baheketa bat gertatzen da, eta faktore profesionalek, pertsonalek eta testuinguruak eragiten dute prozesu horretan. Nolanahi ere, profesionalizaziorako ezinbestekoa da **laguntza publikoa jasotzea**, jakinda pertsona guztiak ez direla iritsiko sorkuntzaren profesional izatera, hau da, sorkuntza-jardueratik bizitzera. Oso gutxik lortzen dute helburu hori zuzenean; baina posible da (eta beharrezkoa) diru-sarreraren ikuspegitik bigarren mailakoak (eta batzuetan, lehen mailakoak ere) izan daitezkeen aukerak bilatzea. Horretarako, politika publikoak ezinbestekoak dira.



**Betekizun bat.** Sistema batek ez du ezertarako balio profesionalizazio-aukerak eman arren ibilbidea finkatzea ahalbidetzen duen egitura instituzionalik ez badago. Prestakuntza-aldia luzatzea besterik ez da lortzen horrela. Bestela esanda: **sistema sendo** bat izatea da profesionalizazioa bermatzeko gakoa. Horretarako, sistemaren zati guztiak elkarrekin lotu behar dira: sorkuntza- eta ekoizpen-zentroak, ekoizpen-enpresak eta dendak, erakusketa-aretoak, azokak, jaialdiak, laguntza-formulak (bekak, egonaldiak, bidaia-poltsak, enkarguak, lankidetzak, kontratazioak, laguntza-zerbitzuak...), publikoak, etab. Araza da sistema hori asimetrikoa dela baliabideen aldetik, eta konplexua funtzionamenduaren aldetik. Sistemak, ordea, baditu indarguneak ere: egiturak, politika publikoak, arte- eta enpresa-sarea eta sormen-dentsitatea.

**Asimetriak eta hutsuneak.** Dauden tresnak aztertuta, alde handiak antzeman ditugu sektoreen artean laguntza-aukerari dagokienez: arte eszenikoak nabarmentzen dira, eta agerian geratu dira funtzionamendu-logikaren ondorioz arlo batzuetan dauden gabeziak (literaturan edo herri-musikan, esaterako).

Egungo laguntzak, hein handi batean, karrera artistikoen hastapenak edo lehen faseak bultzatzeko sortu dira, eta ez ibilbideak finkatzeko. Artearen sistemaren konplexutasunagatik, oso zaila izaten da karrera artistikoak finkatzea, eta, beraz, artista ospetsuenek ere ezin dute sorkuntzan jardun beste diru-sarrerara iturri batzuk izan gabe. Sortzeko denbora nahikoa ematen duten programak falta dira, diruz ongi hornituak eta artistei aukera emango dietenak beren lana erreferentzia-zentroetan erakusteko. Asmo handiko helburuak finkatu behar dira, bikaintasuna sustatuz eta laguntza emanez eliteko artistak sortu ahal izateko, eta erakundeen arteko akordioak bultzatuz: Gobernuaren eta erakunde handien artean (museoak, ekoizpen-zentroak, orkestrak, antzokiak), edo, merkatuari laguntzeko logikaren barruan, erakunde publikoen eta enpresa edo elkarte profesionalen artean. Eliteko kirolarientzat dauden formulak azter litezke (ADO bekak, gizarte-segurantzako kuoten kostuak ordaintzeko laguntzak, emaitzen araberako laguntzak (nazioarteko sariak).

**Jardunbide egokiak.** Kontua da loturak bultzatzea, sistemako eragileen arteko lankidetzak-formulak bilatuz. Ikuz-entzunezkoei dagokienez, Tabakaleraren adibideak (Zinemaldia, Filmategia eta Tabakalera bera) erakusten du zer-nolako aukerak ematen dituen horrela funtzionatzen duen sistema bat izateak. Beste adibide

bat Azkuna Zentroko Artista Kideak programa da, ospetsu bihurtu diren artistei zuzendua. Lankidetzak hori bi aldeentzat da onuragarri: artistak ekarpena egiten dio programazioari, formatu tradizionalak alde batera utziz, publikoekin lan egiten du eta zentroa hurbiltzen du tokiko edo nazioarteko beste testuinguru batzuetara; eta zentroak, bere aldetik, beharrezko baliabideak eta guneak eskaintzen ditu, sormen-prozesurako beste denbora batzuk emanez eta esperientzia tekniko-profesionala partekatuz. Arte eszenikoetan, Pabellón 6ko Gazte Konpainia nabarmendu behar da, eta musikaren arloan, EGOk etorkizuneko profesionalen prestakuntzan duen egitekoa. Ikuz-entzunezkoei Kimuak programaren lana azpimarratu behar dugu. Euskarazko literaturan, elkarte profesionalaren (EIE) eta beste kultur erakunde batzuen (EKE, Pasai Donibane, CPE Euskal Itsasbastera) arteko lankidetzak nabarmentzen dira.

**Zubiak.** Berezi garrantzitsuak dira mentoring erako zubi-programak. Hain zuzen ere, aholkuak eta prestakuntza ematen dizkiete belaunaldi berriei, ezagutza, ibilbidea eta eskarmentu handia duten belaunaldien bidez. Badira adibideak arte eszenikoetan (Harrobia), ikuz-entzunezkoei (Noka mentoring), dantzan (Dantzan Bilaka) edo ikusizko arteetan (PIA sortu berria). Ezagutzaren transmisioa funtsezkoa da, bai praktika artistiko espezifikoen ikuspegitik, bai gazteen gida profesionalen "ofizio" deitzen den horren esperientziaren ikuspegitik.

Era berean, indartu egin beharko lirateke sortzaileen eta ekoizleen arteko eta diziplinen arteko zubi-programak, sorkuntza- eta ekoizpen-zentroetan praktika artistikoetarako egonaldiak bultzatuz. Ildo horretatik, Behatokiak egindako txostena kontsulta daiteke (**Egonaldiak: ereduen azterketa**).

**Aukerak.** Sorkuntza edo interpretazioa bada sorkuntza-jardueraren muina, alde batera utzi behar dugu ideia hau: obra erostea, antzeppenak kontratatzea edo laguntza publikoak jasotzea direla zuzeneko diru-sarreraren iturri bakarrak. Izan ere, artistek badute aukera beren ezagutzari eta obrari lotutako zerbitzuak eskaintzeko (prestakuntza, tailerrak, bitartekaritza, orientazioa, aholkularitza artistikoa...). Eta hartzaileak ez dira zertan izan publikoak edo beste artista eta sortzaile batzuk; izan daitezke, baita ere, kultura-zentroetako talde teknikoak eta kudeaketa-taldeak. Kontuan hartu behar da, halaber, zentro publikoetako programatzaileen eta arduradunen belaunaldi batek erreleboa behar duela; pertsona horiek sortzaileen eskura jarri dezakete kudeaketaren arloan duten ezagutza.

**Prestakuntza eta ekintzailtza.** Profesionala izateko, bi gaitasun mota behar dira: artistikoak eta kudeaketari lotutakoak. Laguntzak lehenengo trebetasunean kontzentratzen dira, bai etapa akademikoan, bai karrera artistikoen lehen urratsetara bideratutako programetan. Bultzatu egin behar dira sorkuntza eta ekoizpena, bai eta norberaren lana ezagutarazteko eta merkaturatzeko gaitasuna ere; baina horrez gain, artistak gai izan behar du bere ibilbide profesionala kudeatzeko. Beraz, bi alderdi horiek uztartu beharko lirarteke:

- Prestakuntza eta birziklatze artistikoa sorkuntza-zentro espezializatueta tailerretan.
- Enpresa-prestakuntza eta laguntza-zerbitzuak. Enpresek bezala, artista profesionalek orientazioa eta aholkularitza behar dute, batez ere finantza-, merkataritza- eta zerga-kontuetan, beren berezitasunetara egokituta. Ildo horretatik, funtsezkoa da elkarte profesionalek duten eta izan dezaketen zeregina, ez bakarrik prestakuntzaren ikuspegitik; baita mota horretako zerbitzuak emateko orduan ere. Musikaren arloan badira adibideak.

**Mugikortasuna.** Atzerriko egonaldiak, gomendagarriak baino gehiago, ezinbestekoak dira profil jakin batzuetako karrera profesionaletan. Musika klasikoa dugu horren adibide paradigmaticoena, ibilbideei buruzko kapituluaz azaldu den bezala. Berez, ez da nahitaezkoa atzerri joatea. Hala ere, egonaldiek artista guztien karrera profesionalak indartzen dituzte, esperientzia horrek emandako aukerei esker (ikasteko aukerak, kontaktuak, sareetako kide izatea, beste merkatu batzuk ezagutzea, beste programa batzuetan parte hartzea, norberaren lana ezagutaraztea, eta abar). Europan horrelako programen alde egindako apustuak argi erakusten du zeinen garrantzitsua den mugikortasuna artisten profesionalizaziorako. Ildo horretatik, eredu garria da sorkuntza-zentro nagusiek (Tabakalerak edo Azkuna Zentroak, esaterako) egiten duten lana, bai eta Etxepare Institutuak egiten duena ere.

**Kalteberatasuna.** Prekarietatea eta karrera artistikoak garatzeko dauden zailtasun orokorrak kontuan izanik, arreta berezia jarri behar da kolektibo ahulenetan: adineko artistak, emakumeak... Txostenean azaldu dugun bezala, kontziliazioa bereziki zaila da emakume artista eta sortzaileentzat. Etengabe salatzen da arazo hori, eta agerian geratu da hainbat sektoretan emakumeek duten egoerari eta presentziari buruz


egindako azterlanetan. Bada garaia profil horietarako laguntza-formula espezifikoen pentsatzeko. Hala ere, bide onetik goazela dirudi; izan ere, Eusko Jaurlaritzak berariazko dirulaguntzak sortu ditu, eta gutxieneko batzuk ezarri ditu gazte eta emakumeentzat. Beste adibide bat Noka mentoring programa da.

**Lan- eta zerga-eskubideak.** Behatokiak egindako txostenean deskribatzen dira Artistaren Estatutuan jasotako aldarrikapenak, gai hauen inguruan: errendimenduen irregularitasunetik eratorritako fiskalitatea, gastuen kenkariak eta jabetza intelektualaren eskubideak; langile autonomoen lan-babesari eta Gizarte Segurantzari buruzko proposamenak, ekonomia-jardueren gaineko zerga; gizarte-prestazioak, lanbide-trantsizioak eta lan-osasuna; diru-sarrerak bateragarri egiteko neurriak. Alderdi horiek guztiak aintzat hartu beharko lirarteke, kulturaren arloko profesionalek beste lanbide batzuetako eskubide berberak izan ditzaten. Ezin da profesionalizaziorik egon lan- eta zerga-baldintza justu eta duinik gabe.

**Gutxieneko errenta.** Aztartzen hasi beharko litzateke gutxieneko errenta unibertsal bat jasotzeko aukera. Berritri diogu: kontua ez da kulturaren arloko profesionalentzat gainerakoentzat baino eskubide gehiago aldarrikatzea, espezifikotasuna edo kultura-jardueraren balioa argudiatuta. Hori beste eztabaida bat da, eta bereizi egin behar da egoera profesionaletik. Eskatzen duguna da artistek aukera izatea beren karrera gainerako profesionalen baldintza berberetan garatzeko, oztopo gehigarriak eta konparaziozko bidegabekeriak gabe. Eztabaida herritarren eskubideak aldarrikatzera bideratu behar da, lan-merkatua kanpo utzita. Azken finean, horrek berekin dakar gutxieneko errenta unibertsal bat aldarrikatzea. COVID-19ak eragindako egoeragatik, inoiz baino beharrezkoagoa da eztabaida honi berriz heltzea.

**Jarraipena.** Azkenik, hau esan behar dugu: errealitate batean eragiteko eta gauzak aldatu ahal izateko, nahitaezkoa da errealitate hori ongi ezagutzea. Oraingoan, ez dago inongo tresnarik sortzaileen jarraipena egiteko denboran zehar; jakiteko zer zailtasun izan dituzten beren ibilbidean, edo zer aukera eta laguntzari esker egin duten aurrera. Izan ere, atzera begiratu gero, ez dakigu ezertxo ere erakundeen programetan behak jaso zituzten artista askori buruz; ez dakigu zer gertatu zaien. Beraz, ideia ona izango litzateke informazioa biltzea, bost urtean behin, laguntza publikoak jaso dituzten pertsonen buruz, haien ibilbideak aztertzeke eta laguntza-programak egokitu ahal izateko sortzen diren premietara.





**Kulturaren  
Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA